astiberri

6 URTETIK AURRERA





BIGA 1. BENETAN IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA

Gidoia: **Romain Pujol**
Marrazkiak: **Vincent Caut**
Itzulpena: **Jon Muñoz**

Astiberri Ediciones. Bilbo, 2020
Kolorea. Paper-azala azal-hegalekin
64 orrialde. 17 x 21,46 cm. 10 euro
Txikiberri bilduma
ISBN: 978-84-17575-85-4

3. EDIZIOA

Barreak, beso luzagarriak, eta goxokiak... Biga iritsi da gure artean gelditzeko

Burua **biribila** eta **jostaria** du, begirada **alaia** eta **bihurria** eta margoz aldatzen du nahi duenean: nor da, bada, eskolako jolas-patiora etorri berria den hori? Nolanahi ere, saileko **protagonistak ezusteko** bat baino gehiago dauka bere motxilan

Eskolara berriz! "Animalia" lehen hezkuntzako eskolak zabalik ditu ateak bere ikasleentzat lehen eskola-egunean eta Bigak bere lekua bilatzen du ikaskideen artean. Ikasturte berriaren ohiko hasiera dirudi, baina Bigak hasiera-hasieratik txunditu ditu ikasleak. Ez du bere ikaskide txikien batere antzik. Ez da haiek bezalakoa: ez hartza, ez txoria, ez

facebook.com/astiberri @astiberri
@astiberri.infantil
ASTIBERRI
astiberri.com
485 kutxatila. 48080. Bilbo
689 213 317 • prensa@astiberri.com

dortoka. Eta zer esan haren botere eta ahalmen ikaragarriez, haiei esker bihurtu baita Biga eskolako patioko izarra, eta bide batez gorengo maila kendu baitio Leoi kameleoiari? Biga "benetan identifikatu gabeko animalia" da, eta txundituta uzten ditu denak, hunkituta eta liluratuta haren fantasiaz eta berezitasunaz. Eta, azken batean, adiskide handi bat besterik ez balitz? Heroi txiki berri bat, jatorra eta atsegina.

Gidoiak bi orrialdeko abenturatan egituratuta daude, eta modu xaloan lantzen ditu gai garrantzitsuak: desberdintasuna, bullyinga edo adiskidetasuna. Umorea, jakina, funtsezkoa da eta nonahi ageri da Vincent Cautek samurtasun grafiko handiz marrazten dituen kontakizun hauetan. Horrez gainera, albumaren amaieran irakurleak orri bikoitz bat aurkituko du Bigarekin eta bere adiskideekin jolasteko. Sail hau *Ariol* arrakastatsuaren editoreek argitaratu dute Frantzian, eta 70.000 aletik gora saldu ditu.



"Umore oneko dosi eder bat txertatzen die gure umeei, lan bitxi, fresko, dibertigarri eta adimentsu baten erritmoan".

Planète BD

"Liburu honetako lehenengo orrialdea gainetik irakurtzen duzun orduko, sumatuko duzu ez dela ikusten ezer benetan iraultzailerik: eskola bat, jolas-patio bat, lagun talde alai bat, super botereak, jipoi-emaile batzuk hemen, guraso zoragarri batzuk han... Gazteentzako sail klasikoen osagai guztiak hor daude. Baina, hara, Bigarekin horrek bereziki ondo funtzionatzen du, sinpletasun eta freskura harrigarriz".

Bodoï

ROMAIN PUJOL (Albi, 1989) eskola garaiaz gero ari da bere unibertso propioa sortzen eta irakasleen eta eskolakideen karikaturak eskuetan erortzen zitzaion edozein paperetan marraz-ten. 2006an bigarren saria eskuratu zuen "Teenagers" kategorian Colomierseko komiki lehiaketan. Hura izan zen bere grina ogibi-de bihurtu behar zuelako baieztapena. 2007an, batxilergoa egi-ten ari zen bitartean, bere pertsonaia zoro-zoroak lantzen zituen blog bat sortu zuen. Arte Aplikatuen lizentzia lortu zuen 2011n, eta hala lasaitu zituen gurasoak. Bera eta Thitaume, Tolosako gidoigi-le bat, aukeratu zituzten Rabbids bideo-jokoa komikira egokitzeko. 2013an, Milan argitaletxeak gazteentzako pertsonaia berriak sort-zea proposatu zion eta proposamen hura *Avni* (Biga) saila bihurtu zen azkenean, Vincent Cautek marraztua eta *Toboggan* aldizkarian aldez aurretik argitaratua (400.000tik gora harpidedun). Thitaume bere lankidearekin elkarlanean gazteentzako beste sail baten gi-doian lantzen ari da: *Balez et Malina.*

VINCENT CAUT (Melun, 1991) 13 urterekin ustekabean komiki-blog batekin topo egin zuenean hasi zen komigintzan. Zaletasunez eta dibertitzeko, interneten komikia lantzeko aben-turari ekitea erabaki zuen. 2009an bigarren saria eskuratu zuen Angulemako jaialdiko Révélation Blog lehiaketan, eta horri es-ker bere lehen albuma argitaratu ahal izan zuen, *Le Trésor de l'Île Mokoko* ("Mokoko uharteko altxorra") Diantre! argitaletxearent-zat. Vincent Caut arte aplikatuen ikasketak egiten ari da gaur egun eta gazteentzako ilustrazioan dihardu azkenaldi honetan (*Okapi, Phosphore*, Makaka, La Boîte à bulles…). *Avni* (Biga) sailaz gaine-ra, marraztu ditu baita ere Mes 100 premiers mots des animaux ("Animalien nire lehen 100 hitzak") eta *Où es-tu, Léopold*? ("Non zaude, Léopold?") saileko hiru liburuki.

SAIL BEREKO BESTE LIBURUAK EUSKARAZ:



Biga 2
Super laguna!
3. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-42-1



Biga 3
Errekreazioak, klik eta ekin!
2. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18215-80-3



Biga 4
Biga endreda-makila
2. edizioa
64 orrialde. 10 euro
ISBN: 978-84-18909-08-5



Biga 5
at eta bakarra
2. edizioa
64 orrialde. 11 euro
ISBN: 978-84-18909-87-0

biga
BENETAN IDENTIFIKATU GABEKO ANIMALIA
HORRA, BIGA! IRITSI GARA!
ZURE ESKOLA BERRIA AURKEZTEN DIZUT!
Animaliako eskola
HARA!
ARRATSA ARTE, AITA!
HORI AL DA BERRIA? AURPEGI BITXIA DU...
ZER ANIMALIA MOTA DA?
SAGU BAT DIRUDI...
EDO, BEHARBADA, HARTZATXO BAT...
?
OSO BITXIA!
HARTZATXO URDINAK EZ DIRA EXISTITZEN, ORDEA...
AIZU, ADISKIDEA! ZER ZARA, ZEHAZKI?
NI?
TIRA, BIGA NAIZ...

ZER DIO, BA?
BIGA BAT DA.
ZER?
KAIXO, BERRIA! JAKIN AL DAITEKE ZER ANIMALIA MOTA ZAREN?
NI...
BIGA BAT DELA ESATEN DU.
ZER DA BIGA BAT?
BITXIA BENETAN!
ZERGATIK ZARA URDINA?
ESPEZIE BERRI BAT?
ZER IKASLE ARRAROA...
MARTETARRA AL ZARA?
KAR-KAR!
OSPA! UTZI ARNAS PIXKA BAT HARTZEN ZUEN IKASKIDE BERRIARI!
BIGAK EZ DU EZER BITXIRIK! ETA URDINA DA, INONDIK ERE, NIRE MARGORIK MAITEENA!
BAI, MAISTRA...
BAI, MAISTRA...
BAI, MAISTRA...
NIK IZUGARRI MAITE DUT BERDEA!
POP!
HARA! BITXIA DA, GERO!
KAR-KAR!
AMAIA